



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 20744686

Goierrri 
fundazioa

GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOA ESTATUTUAK

2018ko Ekaina



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 20744687

Goierrri fundazioa

AURKIBIDEA

I. IDAZPURUA- XEDAPEN OROKORRAK	5
1. Artikulua. Eraketa, izena eta Iraupena	5
2. Artikulua. Lege araubidea, nortasuna eta galtasun juridikoa	5
3. Artikulua.- Fundazioaren helburuak eta lurralde eremua	5
4. Artikulua.- Egoitza	6
5. Artikulua. Helburuen garapena eta onuradunak	6
II. IDAZPURUA.- PATRONATUA	6
I. KAPITULUA. OSAERA ETA ESKUMENAK	6
6. Artikulua. Patronatua	6
7. Artikulua. Osaera	6
8. Artikulua. Karguaren iraupena	7
9. Artikulua. Doakotasuna	8
10. Artikulua. Fundazioko lehendakaria	8
11. Artikulua.- Lehendakariordea	8
12. Artikulua. Idazkaria	8
13. Artikulua. Zuzendaria/Gerentea	iError! Marcador no definido.
14. Artikulua. Patronatuaren eskumenak	9
15. Artikulua.- Ordezkaritzak, ahalordetzeak eta Batzorde Delegatuak	10
16. Artikulua. Patronatuaren betebeharrak	11
17. Artikulua. Erantzukizuna	11
II. KAPITULUA: PATRONATUAREN JARDUNBIDEA	12
18. Artikulua. Barne funtzionamendua	12
19. Artikulua. Eraketa eta erabakiak hartzea	13
III. IDAZPURUA.- ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA	14
I. KAPITULUA. OSAERA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAIINTZA	14
20. Artikulua. Fundazioaren ondarea	14

21. Artikulua.- Baliabideak.....	14
22. Artikulua.- Ondarearen aldaketak.....	14
23. Artikulua.- Fundazioaren ondarearen zaintza.....	15
II. KAPITULUA: ARAUBIDE EKONOMIKOA.....	15
24. Artikulua. Ekitaldi ekonomikoa	15
25. Artikulua. Betebehar ekonomikoak eta kontabilitatekoak.....	16
26. Artikulua. Kontuak ematea	16
27. Artikulua. Administrazioko diru sarrera eta gastuen erabilera.....	16
IV. IDAZPURUA PROTEKTORATUA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA	17
28. Artikulua- Protektoratua.....	17
29. Artikulua- Fundazioen Erregistroa	17
V. IDAZPURUA. IRAUNGIPENA.....	17
30. Artikulua.- Iraungitzeko arrazoiak	17
31. Artikulua- Kitapena	18



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 20744688

Goierri 
fundazioa

I. IDAZPURUA- XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua. Eraketa, izena eta iraupena

FUNDACIÓN GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA irabazi asmorik gabe eta ekainaren 2ko 9/2016 Legeak eta Indarrean dauden arauak xedatzen dutenaren arabera eratutako fundazioa da, eta, bere sortzaileek hala nahi dutelako, bere ondarea Estatutu hauetako 3. artikuluan zehazten diren interes orokorreko helburuak betetzeko izango da beti.

2. Artikulua. Lege araubidea, nortasuna eta gaitasun juridikoa

Fundazioak nortasun juridiko propioa eta independentea dauka, Fundazioen Erregistroan eraketa eskritura inskribatu zuenetik, eta erabateko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izango du, muga bakarrak fundatzaileek fundazioa sortzean adierazitako borondateetan, Estatutu hauetan eta, kasuan kasu, aplikatu behar zaizkion lege xedapenetan, eta, bereziki, Euskal Herriko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 legean ezarritakoak direla.

Horren ondorioz, eta protektoratuari egin beharreko jakinarazpenak alde batera utzita, edozein ondasun higiezin zein higigarri eta eskubide erosi, zaindu, eduki, erabilgarri jarri eta besterendu ahal izango ditu, edozein bide erabilita, bai eta horiek zergapetu ere. Era berean hauek ere egin ahal izango ditu: edozein ekintza edo kontratu egin; maileguak jaso eta ordaindu; amore eman eta gobernu bidera edo bide judizialera jo, edozein ekintza motaz eta salbuespenez baliatuta Epaitegi, Auzitegi eta organismo publiko eta pribatuen aurrean, ordenamendu juridikoan ezarritakoari men eginda.

3. Artikulua.- Fundazioaren helburuak eta lurralde eremua

Fundazioaren helburuak dira heziketa, irakaskuntza gradu eta genero guztietan, prestakuntza eta garapen tekniko eta soziala eta enplegua sustatzea eta gizarte-bazterketako egoeran dauden edo egoera horretan izateko arriskua duten pertsonak eta/edo desgaitasunen bat duten pertsonak eta/edo gizarte edo lan-arloetan desabantaila-egoerak bizi dituzten pertsonak laneratzea, batez ere Goierriko Eskualdean.

4. Artikulua.- Egoitza

Fundazioaren egoitza Ordiziako Arranomendia kaleko 2an dago, Gipuzkoan.

Patronatuak sozietatearen helbidea aldatzea erabaki dezake bere kabuz, baina Fundazioen Erregistroan jakinarazi beharko da aldaketa. Era berean, Patronatuari ahalmena ematen zaio fundazioaren helburuak betetzeko behar denaren arabera finkatuko diren establezimendu, delegazio edo bulegoen egoitzak zehazteko.

5. Artikulua. Helburuen garapena eta onuradunak

Fundazioaren baliabideak Fundazioaren helburuak lortzeko erabiliiko dira, gobernu organoak ezartzen dituen aurrekontuak eta erabileren arabera.

Onuradunak Fundazioaren lurralde eremuan bizi direnen artean aukeratuko dira nagusiki, Fundazioaren Patronatuak finkatzen dituen irizpideen arabera.

II. IDAZPURUA.- PATRONATUA

I. KAPITULUA. OSAERA ETA ESKUMENAK

6. Artikulua. Patronatua

Patronatua Fundazioaren gobernuko, administrazioko eta ordezkaritza organo gorena da, eta bere esku egongo dira Fundazioaren helburuak betetzeko Fundazioaren kudeaketan egin beharreko zuzentze eta kontrolatze lan guztiak. Zehazki, Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratuko ditu.

7. Artikulua. Osaera

Fundazioaren Patronatua honako kide hauek osatuko dute:

- a) Herri hauetako udalek: Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Altzaga, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ormaiztegi, Ordizia, Segura, Zaldibia, Zegama, Zerain. Ondorio horietarako, udalek pertsona fisiko bat izendatuko dute beraiek ordezkatzeko.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 20744689

Goierri 
fundazioa

- b) Goierriko Eskualdean egon eta Fundazioaren helburuetan lagundu dezaketen enpresek. Fundazioaren Patronatuan ordezkatzuta dauden enpresak Patronatuak berak izendatu eta kargutik kenduko ditu, gehiengo soiluz hartutako erabakiaren bitartez, betiere bere kideen erdia gehi bat bozketan bertan presente edo ordezkatzuta badaude.

Fundazioaren Patronatuan egoteko aukeratzen diren enpresek pertsona fisiko bana aukeratuko dute beraiek ordezkatzeko. Enpresen ordezkariak ez dira inolaz udalen ordezkariak baino gehiago izango.

- c) Goierri Eskolako zuzendaria.
- d) Fundazioko zuzendaria/gerentea.

Fundazioaren Patronatuko ohorezko kide izendatu ahal izango dira Fundazioaren alde egindako ekarpen, ahalegin eta lanagatik eta beste ezaugarri kultural edo sozial garrantzitsu batzuegatik ohorezko izendatzea merezi duten pertsonak.

8. Artikulua. Karguaren iraupena

Udaletako kargu hautetsiak berritzeaz bat berritu edo berriz hautatuko dira udalen ordezkariak. Halere, legegintzaldiak amaitu gabe egon arren, udalek beren ordezkariak aldatu ahal izango dituzte, hala egitea beharrezkoa bada.

Patronatuan ordezkapena duten enpresak epemugarik gabe izendatuko dira.

Patronatuko karguak enpresan betetzen duten postuaren arabekoak badira, automatikoki berrituko dira, Patronatuari postua okupatuko duen pertsonaren berri eman bezain laster.

Fundazioaren Patronatuko ohorezko kideen izendapena eta kargugabetzea artikulua honetan aipatzen diren Patronatuko beste kideen adostasunez erabakiko da.

9. Artikulua. Doakotasuna

Patronatuko kideek dohainik gauzatuko dute beren kargua. Halere, dagozkien zereginetarako egiten dituzten gastuak ordaindu ahal izango zaizkie, behar bezala justifikatzen badituzte.

10. Artikulua. Fundazioko lehendakaria

Patronatuak pertsona bat aukeratuko du bere kideen artetik Fundazioko lehendakari izateko. Lehendakari horri Patronatua deitzea egokituko zaio, bere kabuz edo gutxienez bere kideen heren batek eskatuta, bai eta etabaidak zuzentzea eta erabakiak betearaztea ere.

Patronatuaren lehendakaria gobernu organo horren ordezkari gorena izango da, eta, organo horretako edozein kidek dituen berezko ahalmenez eta Estatutu hauetan esleitzen zaizkionez gain, Fundazioa ordezkatu beharko du Patronatuaren erabakien ondorioz egiten diren ekintza eta kontratu guztietan, bai eta tokatzen zaizkion auzi, espediente, gai administratibo, gobernuko, judizial eta epaiz kanpokoetan ere, eta Prokuradore edo Abokatuei horien gaineko auzietan parte hartzeko botere orokorrak eman ahal izango dizkie.

11. Artikulua.- Lehendakariordea

Patronatuak lehendakariorde bat hautatu ahal izango du bere kideen artetik. Hautaketa bere kideen gehiengoaren botoarekin egingo da.

Lehendakariordeak lehendakariaren lanak egingo ditu, lehendakaria ez dagoenean edo gaixorik dagoenean. Egoera horiek egiaztatzeko, nahikoa izango da esatearekin. Lehendakaria eta lehendakariordea, biak ez daudenean, adinez adinduen den kideak ordezkatzeko ditu.

12. Artikulua. Idazkaria

Patronatuak idazkari bat izendatu ahal izango du bere kideen artetik edo horietatik kanpo. Idazkariaren eginkizuna izango da Fundazioaren administrazio lanak zuzentzea, eta horretaz aparte dokumentazioa zaindu eta bileren aktak egingo ditu, behin aktak onartuta eta lehendakariaren oniritzia izan ondoren Akta Liburura pasatzeko.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 20744690

Goierri fundazioa

13. Artikulua. Goierri Eskolako Zuzendaria eta Fundazioko Zuzendari/Gerentea

Goierri Eskolako Zuzendaria eta Fundazioko Zuzendari/Gerentea Fundazioaren Patronatuak izendatuko ditu, patronatuak berak adierazitako moduan eta indarreko lege xedapenen arabera dagozkion baldintza eta ahalmenekin.

14. Artikulua. Patronatuaren eskumenak

Patronatuari Fundazioaren gobernuarekin lotutako guztia dagokio, eta, bereziki, honako zeregin hauek:

- a) Fundazioak bere helburuak ahalik eta hoberen betetzeko hartu behar duen norabidea adieraztea.
- b) Baliabide ekonomiko eta finantzario guztien administrazioa, horien jatorria edozein dela ere
- c) Inbentarioa, Egoeraren Balantzea, Emaitzen Kontua eta aurreko ekitaldiko Memoria onartzea, bai eta aldi horretako diru sarreraren eta gastuen aurrekontua kitatzea ere.
- d) Datorren ekitaldiko diru sarrera eta gastuen aurrekontua onartzea, bai eta aurrekontua azaltzen duen memoria ere.
- e) Komeni diren barne arauak onartzea.
- f) Batzorde Delegatuak osatzea, bere kideak izendatzea eta kideen ahalmenak erabakitzea, bai eta ahalmen orokorrak edo bereziak ematea ere ondorengo artikuluan ezartzen denaren arabera.
- g) Zuzendari karguak, kargu exekutiboak eta aholkulariak izendatzea, bai eta beharrezkoak diren gainontzeko teknikariak, administrariak, lan kontratupeko langileak eta mendeko langileak kontratatzea ere.
- h) Fundazioaren helburuak ahalik eta hoberen betetzeko beharrezkoak diren ekintza eta kontratu mota guztiak izenpetzea eta onartzea, berdin dela zein eratakoak diren (zibillak, merkataritzakoak, lan alorrekoak, administrazioakoak edo beste edozein eratakoak).

- i) Organismo eskumendunek egindako proposamenak goragoko organori helaraztea, proposamenaren gaia dela-eta erabakia hartzea goragoko organoari dagokionean.
- j) Enpresek, erakundeek, organismoek edo norbanakoek lankidetzak teknikorako eta langile kualifikatuen prestakuntzarako programetan parte hartzea bultzatzea, fondoak jarritz eta lankidetzak hitzarmenak izenpetuz.
- k) Herentziak, legatuak edo dohaintzak onartzea edo arbuiatzea, Fundazioarako egokitzat jotzen bada, eta Protektoratuari horren berri ematea.
- l) Fundazioaren Estatutuak aldatzea, fundatzailearen borondatea ahalik eta hoberen betetzeko beharrezkoa balitz.

15. Artikulua.- Ordezkaritzak, ahalordetzeak eta Batzorde Delegatuak

Patronatuak bere ahalmenak eskuordetu ahalko ditu bere kideren batengan. Ezin izango da, inola ere, eskuordetu gai hauek erabakitzen dituzten akordioak:

- a) Urteko kontuen onespina.
- b) Jarduera-planaren onespina.
- c) Estatutuen aldaketa.
- d) Fundazioaren bat-egitea, bereiztea, eraldatzea, azkentzea eta likidatzea.
- e) Beste pertsona juridiko baten eratze-egintzak, ez badaude erabat lotuta helburuei.
- f) Beste pertsona juridiko batzuetako partaidetzak eskuratzeko edo saltzeko egintzak, baldin eta partaidetza horien zenbatekoa fundazioaren aktiboaren % 20 baino gehiago bada.
- g) Fundazioaren aktiboaren % 20 gainditzeko duten ondasunak edo eskubideak xedatzeko edozein egintza.
- h) Zuzkidura handitzea edo gutxitzea.
- i) Aktibo eta pasibo guztien edo haien parte baten bat-egitea, bereizketa edo lagapen orokorra.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 20744691



- j) Sozietateak edo beste pertsona juridiko batzuk desegiteko egintzak.
- k) Patronatuko kideen autokontratazioa, salbu eta jarduketa hori errepikatua bada eta Babesletzak aurretik baimendu badu kasu berdinatarako.
- l) Erantzukizunpeko adierazpenak onartzea eta formalizatzea.

Aurreko paragrafoan adierazitako mugapenekin Patronatuak Batzorde Delegatuak eta Exekutiboak eratu ahal izango ditu, kasuan kasu erabakitzen dituen ahalmenekin, bai eta ahaldu orokorrak edo bereziak izendatu ere, zeregin mankomunatu edo solidarioekin.

16. Artikulua. Patronatuaren betebeharrak

Fundazioaren Patronatuko kideek honako betebeharrak dituzte:

- a) Fundazioaren helburuak zorrotz bete eta betearazi beharko dituzte, Legeak eta Fundazioaren Estatutuaren ezarritakoaren arabera.
- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratu behar dituzte, bai eta haien produktibitateari erabat eutsi ere, kudeatzaile on baten irizpide ekonomiko eta finantzarioen arabera.
- c) Kargua bete, legezko ordezkari bati dagokion prestasunez.

17. Artikulua. Erantzukizuna

- a) Patronatuko kideek Fundazioaren aurrean erantzun beharko dute, Legeek xedatzen dituzten baldintzetan.
- b) Ez dute erantzun beharrik izango Fundazioa sortzearen aurka agertu direnek edo erabakian parte hartu ez dutenek, erabakiaren berri eduki eta aurka agertu ez zirela frogatzen bada izan ezik.
- c) Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko da, gobernu organoek erantzukizuna eskatuz egiten duten ekintza, bai eta ekintza horren gainean ematen den behin betiko epaia ere.

- d) Protektoratuak, bere kabuz edo legezko interesa duenak egindako bidezko eskaeraren bitartez, erantzukizun ekintza hori gauzatu ahal izango du. Fundatzaileak ere gauzatu ahal izango du erantzukizun ekintza hori, Patronatuko kideek aurkakoa egiten badute edo egiten dutenarekin fundazioaren helburuei kalte egiten badiete.

II. KAPITULUA: PATRONATUAREN JARDUNBIDEA

18. Artikulua. Jarduera- eta funtzionamendu-printzipioak

- a) Fundazioak printzipio hauek beteko ditu bere jardueran:

- 1) Publikotasuna eta gardentasuna. Fundazioaren xede eta jarduerari buruzko informazio nahikoa emango du, herritarrek oro har eta behin-behineko onuradunek haien berri izan dezaten.
- 2) Inpartzialtasuna eta bereizkeriarik eza pertsona onuradunak zehazterakoan, baita jarduerak eta prestazioak zehazterakoan ere.
- 3) Jarduteko jarraibideen sustapena. Horretarako, jokabide-kodeak eta jardunbide egokien kodeak sortuko ditu.
- 4) Patronatuko kideen zerbitzu-espirtuaren sustapena, bai eta fundazioaren interesak norberaren interesen aldean lehenesteko espirtuarena ere.
- 5) Etengabeko lankidetzeta leiala Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesleztarekin.
- 6) Ondarea eta errentak fundazioaren xedeetarako benetan erabiltzen delako defentsa eta zaintza, Fundazioaren estatutuetan eta indarrean dagoen legedian aurreikusitakoarekin bat etorrita.
- 7) Genero-berdintasuna.

- b) Patronatuak gutxienez bi bilera egingo ditu urtean. Urteko lehen sei hilabeteko epean bilera bat egingo du ezinbestez, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren kitapena onartzeko, bai eta inbentarioa, Jardueren Memoria, Egoeraren Balantzea eta Emaitzen Kontua ere, Estatutu hauetako 26. artikuluan aurreikusitako baldintzen arabera. Era berean, laugarren hiruhilekoan bilerarako deia egin eta hurrengo ekitaldiko



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 20744692

Goierrri •••
fundazioa

aurrekontua onartzeari ekingo zaio, ondoren eta abenduaren 31 baino lehen Protektoratuari bidaltzeko.

Patronatuaren delaldiak idatziz egin beharko dira, gubikenez bilera egin baino 15 egun lehenago, premiazko kasuetan izan ezik, kasu horietan delaldia bilera eguna baino 3 egun lehenago egin ahal izango da eta. Delaldiarekin batera Lehendakariak onartutako gai zerrenda ere joango da, non kontuan hartu beharko baltira gobernu organoek egindako proposamenak.

19. Artikulua. Eraketa eta erabakiak hartzea

Patronatua lehen delaldian balioz eratuta egoteko, bere kideen erdia gehi bat bertaratu behar dira, beraiek zuzenean edo baten batek ordezkaturik.

Aurreko paragrafoan adierazitako quoruma lortzen ez bada, Patronatua elkartu egingo da berriro, ordu erdi geroago, eta bigarren bilera horretan edozein kide kopuru-egonda ere balioz eratuta geratuko da bilera, kide horien artean Lehendakari edo Idazkari karguen titularrak egon beharko direlarik.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoa alde batera utzita, Patronatua deitutzat joko da eta balioz eratuta geratuko da bere kide guztiak presente daudenean eta bilera egitea aho batez onartzen dutenean.

Erabakiak botoen gehiengoarekin hartuko dira, ondoren aipatzen diren kasuetan izan ezik:

1. Aldatzeko, bat egiteko eta amaitzeko erabakia, bertaratutakoen bi herenen aldeko botoa beharko baita.
2. Estatutu hauen arabera beste boto quorum bat behar duen beste edozein.

Berdinketarik gertatzen bada, lehendakariaren botoaz hautsiko da.

Idazkariak Patronatuaren bilera bakoitzaren akta egingo du. Aktan, bilera non eta noiz egin den adierazteaz gain, bertaratuak, eztabaidagaiak eta hartutako erabakiak ere adieraziko dira.

III. IDAZPURUA.- ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

I. KAPITULUA. OSAERA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAINZTA

20. Artikulua. Fundazioaren ondarea

Fundazioaren ondarean ekonomikoki baloratu daitezkeen edozein ondasun eta eskubide motak osatuta egon daiteke. Fundazioak, ondarea erabiltzean eta administratzean, aplikagarri zaizkien arauak beteko ditu, eta ondarearen fruitu edo errentak dagozkien helburuetarako erabiliko ditu, betiere Estatutu hauetan ezarritakoarekin bat etorriz.

21. Artikulua.- Baliabideak

Fundazioaren ondarea hauexek osatuta egongo da:

- a) Sortze eskrituran jasotako hasierako zuzkidura.
- b) Kide sortzaileen (eta atxikitakoen) ekarpenak eta kuotak, ohikoak zein apartekoak, Patronatuko kideek beraien borondatez ordaintzea onartzen dituzten kuota eta ekarpenak, ohikoak zein apartekoak.
- c) Zuzenbidean onartzen diren bideetatik ondoren eskuratutako ondare edo eskubide guztiak, eta, bereziki, beste pertsona, organismo eta erakunde batzuegandik eskuratzen dituen legatu, dohaintza, ekarpen eta diru laguntzak. Dohaintzak, legatuak eta herentziak onartuz gero, Protektoratuari jakinarazi beharko zaio.
- d) Fundazioaren ondareak eta jarduerak ematen duten fruituak edo errentak, produktuak edo onurak, bai eta indarreko legeriaren arabera Fundazioak emandako zerbitzuengatik kobratutakoa ere.
- e) Aplikagarri den lege esparruaren baitan eduki dezakeen beste edozein baliabide.

22. Artikulua.- Ondarearen aldaketak

Fundazioaren Patronatuak Fundazioaren kapitala aldatu, eraldatu edo bihurtu ahal izango du uneoro eta, egoera ekonomikoak eskatuta, behar den



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 20744693

Goierrri 
fundazioa

guztietan, balio nominalari eutsi arren balio efektiboa edo eroste ahalmena ez murrizteko helburu bakarrarekin.

23. Artikulua.- Fundazioaren ondarearen zaintza

Hauexek dira Fundazioaren ondarearen zaintzarako eta babeserako bete beharreko arauak:

- a) Fundazioaren ondarean sartzen diren ondasunak eta eskubideak Fundazioaren izenean egon beharko dira, eta Fundazioaren Inbentarioan jasota egongo dira, bai eta, kasuan kasu, dagozkien Erregistroetan inskribatuta ere.
- b) Ondasun higiezinak edota eskubide errealak Fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabegoaren Erregistroan. Inskribatzeko modukoak diren gainontzeko ondasunak dagozkien erregistroetan inskribatuko dira.
- c) Balioak eta esku dirua, jabego tituluak, gordailu egiaztagiria eta Fundazioa domeinu, jabetza, erabilera, gozamen edo beste edozein eskubideren titularra dela egiaztatzen duen beste edozein egiaztagiria.
- d) Gainontzeko ondasun higigarriak Patronatuak erabakitzen duen moduan zainduko dira.

Ondasun edo eskubide horiek guztiak Inbentarioen Liburuan zehaztuko dira. Liburu hori Patronatuko Idazkariaren ardurapean egongo da, eta bertan jasoko dira ondasun edo eskubideak identifikatzeko eta deskribatzeko beharrezko guztia, Idazkariaren ikuskaritzapean.

II. KAPITULUA: ARAUBIDE EKONOMIKOA

24. Artikulua. Ekitaldi ekonomikoa

Ekitaldi ekonomikoa urtekoa izango da eta urte naturalarekin etorriko da bat. Fundazioak aurrekontu arrunt bat prestatuko du ekitaldi ekonomiko bakoitzerako. Aurrekontu horretan diru sarrerak eta gastuak jasoko dira modu orekatuan.

25. Artikulua. Betebehar ekonomikoak eta kontabilitatekoak

Patronatuak Fundazioaren inbentarioa, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua prestatuko ditu, Fundazioaren ondarearen, ekonomiaren eta finantzen egoerak islatuta. Horretaz aparte, urtean zehar egindako jardueren memoria eta ondarearen kudeaketa ekonomikoaren txostena ere egingo ditu, fundazioaren helburuen eta lege aginduen betetze maila ezagutzera eman eta justifikatzeko behar bestekoa. Aurreko urteko diru sarreraren eta gastuen aurrekontuaren likidazioa ere egingo du, horretarako Legeak xedatutakoa betez.

26. Artikulua. Kontuak ematea

Urteko lehen sei hilekoaren barruan Patronatuak bere kudeaketa Fundazioaren helburuetarako egokia izan dela justifikatu beharko du Protektoratuaren aurrean Fundazioetarako indarreko araudiaren arabera.

27. Artikulua. Administrazioko diru sarrera eta gastuen erabilera

- a) Fundazioaren ondasunak eta errentak zuzenean eta ezer baino lehen Fundazioaren helburuak betetzeko izango dira.
- b) Fundazioak aldiari-aldiari berez bere xederako diren jarduerak programatuko ditu, eta, horretarako, urtero prestazioen plangintza egingo da eta prestazio horiek nola eman eta nola esleitu erabakiko da.
- c) Gutxienez errenta garbiena eta beste edozein kontzepturengatik lortutako beste diru sarrera batzuen %70 erabiliko du bere helburuak betetzeko, horiek eskuratu eta ondorengo hiru urteko epean, kasuan kasu dagozkien zergak kendu ondoren.

Ondare zuzkidura gisa egindako ekarpenek, bai Fundazioa eratzerako unean egindakoek bai eratu ondoren egindakoak, ez dute baldintza hori bete beharrik izango.

Gainontzeko diru sarrerak Fundazioaren zuzkidura handitzeko erabiliko dira, behin administrazio gastuak deskontatuta. Administrazio gastuak



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 20744694



gehienez ere %20 izango dira, indarreko lege eta erregelamenduek xedatutakoaren arabera Protektoratuak, Fundazioaren arrazoiutako eskari batean oinarrituta, bestelakoa baimentzen ez badu, behintzat.

IV. IDAZPURUA PROTEKTORATUA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

28. Artikulua- Protektoratua

Fundazio hau Protektoratuaren babespean, aholkularitzapean eta kontrolpean geratzen da, indarreko Legeek aurreikusten duten moduan.

29. Artikulua- Fundazioen Erregistroa

Fundazio honen eraketa, bai eta eraketa horretarako legez beharrezkoak diren ekintza edo negozio juridiko guztiak ere, Legearen arabera eskumena duen Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

V. IDAZPURUA. IRAUNGIPENA

30. Artikulua.- Iraungitzeko arrazoiak

Fundazioa arrazoi hauetako batengatik iraungiko da:

- a) Estatutu hauetan edo eraketa eskrituran iraungitzea aurreikusten denean. Fundazioaren ondarea desagitea eta fundazioaren helburuak betetzeko ezintasun materiala egotea desagiteko arrazoiak izango dira beti.
- b) Aurreko artikuluan zehazten den moduan adostutako bat-egitea.
- c) Ebazpen judizial irmoagatik.
- d) Kode Zibilaren 39.artikuluan edo beste lege xedapenen batean aurreikusitako arrazoietako bat gertatzen denean.

a) letran jasotako kasuetan eta Fundazioa desagiteari ekin baino lehen, Fundazioaren Patronatua saiatu egingo da, hala ahal bada, Fundazioa bere

laguntza helburuekin jarraitzeko konpromisoa hartzen duten beste erakunde batzuen esku uzten (estatuko erakundeak, autonomi erkidegokoak, probintziakoak, udalekoak edo erakunde pribatuak).

d) letrari dagokionez, eta Legeak kasu horietarako ezar ditzakeen beste helburuei kalte egin gabe, Fundazioak pertsona juridiko berria sortzeko dituen lege aukerez balliatu eta bere xedeen antzekoak dituen beste erakunde bat eratu dezake, bere ondarea erakunde berri horren esku uzteko. Erakunde berriak ez luke zertan fundazio izan.

a) eta d) letretan adierazitako kasuetan, Fundazioa desegiteko beharrezkoa izango da gobernu organoaren aldeko erabakia, Protektoratuaren berretsita. Erabakia arrazoitua izango da, eta erabakiarekin batera fundazioaren egoera eta kitapenaren programa azaldu beharko dira.

Erabakia edo erabakiaren berrespena egon ezean, ebazpen judiziala eduki beharko da Legean aurreikusitako terminoetan.

31. Artikulua- Kitapena

Fundazioa desegiteko erabakiak edo, kasuan kasu, epaileak fundazioaren amaieraren alde emandako ebazpen irmoak, Fundazioak bere ohiko jarduerak amaitzea eta kitapenerako eragiketei ekitea ekarriko du. Kitapena gobernu organoak egingo du Protektoratuaren kontrolpean.

Eraikinen balioa 7. artikuluan aipatzen diren udalen mugarteetan kokatuta dauden ongintza erakundeetara edo laguntza helburuetarako erabiliko ditu Fundazioaren Patronatuak.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 20744695

EUSKO LEZUENBARRITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PUBLICA Y AUTOGOBIERNO

SAILBURUA
EL CONSEJERO

AGINDUA, 2018ko irailaren 04(e)koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita "FUNDACIÓN GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOA" izenekoaren fundazioaren estatutuen aldaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeke.

Ikusi eta aztertu da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea.

AURREKARIAK

2018ko uztailaren 19an, eskabide bat sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko "FUNDACIÓN GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOA" fundazioaren estatutuen aldaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeke egin. Aldaketa hori egitea 2018ko ekainaren 21an erabaki zuen Fundazioaren Patronatuak. Espedientean jasotako agiriak erantsi zitzaizkion eskabide-idazkiari.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio agindu bidez ebaztea fundazioaren estatutuak aldatzeko espedientea. Hala aurreikusten dute xedapen hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzeko ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzeko ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arioak finkatzeko Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren 6.1.m) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen lehenengo xedapen iragankorrak lehenengo puntuan ezartzen duenez, lege hori indarrean jarzen denetik bi urteko epean, fundazioek lege horretara egokitu beharko dituzte haien estatutuak.

Hirugarrena.- Funtsezko iritzitako datuak eta agiriak erantsi zaizkio espedientea honi, eta, bereziki, honako xedapen hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzeko ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 33.1 artikulua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzeko ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikulua. Horrenbestez, aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan xedatutakoarekin bat dator estatutuen aldaketa.

Aipatutako arauak eta aplikagarriak diren gainerakoak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea Ordiziko "FUNDACIÓN GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOA" fundazioaren estatutuen aldaketa, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea egokitzeke egin baitzen; aldaketa hori bat dator 2018ko uztailaren 18an Ignacio Pagola

Villar notarioaren aurrean egiletsitako eskritura publikoko zehaztapenekin (protokolo-zenbakia: 1030).

Bigarrenen.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioka Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz(e)n, 2018ko irailaren 04(e)(a)n

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,

JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO.



Notaria erabilerarako soilik.
Para uso exclusivo notarial.

B 20744696

CONCUERDA fielmente con su original obrante en mi protocolo corriente de instrumentos públicos, bajo el número al principio expresado, y a instancia de DON IÑAKI ZABALO SAN SEBASTIAN y para la sociedad que representa, expido **PRIMERA** COPIA en dieciocho folios de papel timbrado exclusivo para documentos notariales, serie B, número 20744679 y los diecisiete siguientes correlativos. En Ordizia, a veintiuno de septiembre de dos mil dieciocho. DOY FE. -----

